



Universiteit
Leiden
The Netherlands

Typological tendencies in verse and their cognitive grounding

De Castro Arrazola, V.

Citation

De Castro Arrazola, V. (2018, May 3). *Typological tendencies in verse and their cognitive grounding*. LOT dissertation series. Retrieved from <https://hdl.handle.net/1887/61826>

Version: Not Applicable (or Unknown)

License: [Licence agreement concerning inclusion of doctoral thesis in the Institutional Repository of the University of Leiden](#)

Downloaded from: <https://hdl.handle.net/1887/61826>

Note: To cite this publication please use the final published version (if applicable).

Cover Page



Universiteit Leiden



The handle <http://hdl.handle.net/1887/61826> holds various files of this Leiden University dissertation.

Author: De Castro Arrazola, V.

Title: Typological tendencies in verse and their cognitive grounding

Issue Date: 2018-05-03

Laburpena

Tesi hau bertso-gintzari buruzkoa da. Batetik, munduan zehar oso zabalduta dauden hainbat ezaugarri aztertu ditut; bestetik, ezaugarri horien ohikotasuna azaldu lezaketen hipotesi kognitiboak garatu ditut.

Zer da bertsoa? Ikuspegi zabala hartuz, hitzari lotutako hainbat jardun sar daitezke bertsoaren definizioan: abestiak, olerkiak, zotz egiteko formulak, bestelako jolas-kantak, manifestazioetako oihuak. Eguneroko hizketarekin alderatuz, egituraketa maila gehigarriak dauzkate jardun horiek, esate baterako, silaba azentudunen edo taupada baten erregulartasuna, errepikatzen den doinu bat, edo silaba kopuru zehatz bat esaldi bakoitzeko. Ezaugarri horiek, batera hartuz gero, eredu, molde edo egitura mental bat eskaintzen dutela uler daiteke; ereduoi hitzak ezarritik bertsoak osatzen dira.

Bertso-gintza munduko hizkuntza-komunitate guztietan ematen da, hau da, eguneroko hizketa bezalaxe, giza-kulturen ezaugarri unibertsala da. Apalago esanda, orain arte behintzat ez da bertso-bako hizkuntzarik aurkitu. Hori, bere horretan, misteriozkoa da, ez baitakigu zein oinarritzko funtzio bete lezakeen bertsoak ebolutiboki, edo zerk bultzatu duen komunitate oro bertsoa sortzera. Munduan 6000 bat hizkuntza daude, eta abestiak eta olerkiak sortzeko era oso ezberdinak garatu dituzte. Komunitate bakoitzak belaunaldiz belaunaldi berrikuntzak ezartzen ditu, eta, hala eta guztiz ere, badirudi antzekotasunak ere badauzkatela. Bigarren misterio hori tesi honen abiapuntua da.

Zergatik ote dago horren zabaldia errima edo binakako erritmoak? Zergatik ez ote ditugu berrogei silabatako bertso-lerroak sortzen? Faktore ugari baldintzatzen dute bertsoen ekoizpena: gure gorputzen anatomiak (burmuinaren arkitekturak, arnasaren mugak), ingurune sozialaren dinamikak (eguneroko lanak eta aisiak, herrien bilakaera historikoak), eta baita, beharbada, ingurune fisikoak ere (apalago abesten al dute toki hotzetan?). Azalpen potentzial horien itsaso zaballean, hipotesi jakin bat garatu dut tesian, alegia, gizakiok antzekotasun kognitiboak dauzkagula eta horiek antzekotasunak sortzen dituztela munduko bertso-gintzetan.

Ikerketak hiru atal ditu, bakoitzak bertsoen ezaugarri bat aztertzen duela. Atalek bina kapitulu dituzte, aurrenekoa hizkuntza ezberdinetako bertso-

korpusetan oinarrituta, eta bigarrena pertzepzio-esperimentuetan oinarrituta.

Lehenengo atala bertso-moldeen osagaiei buruzkoa da. Bertso berri bat sortu nahi izanez gero *Haizeak bidali du* doinua erabiliz (zortziko txikian, alegia), 52 silabatako testua osatu behar da. Dena dela, jakin badakigu 52 silaba horiek ez ditugula multzo bakar batean ulertzen, osagai eta azpi-osagaietan antolatuta baizik. Bertsoa lau puntuk osatzen dute, puntu bakoitzak bi lerro dauzka, lerrook zazpina eta seina silaba dauzkate, eta, azkenik, taupada musikalek banaka edo bina-ka antolatzen dituzte silabak. Kontinente guztietako hamarnaka bertso-tradizio aztertuz (2. kapitulua) bi ondorio nagusi atera ditut. (1) Bertso-molde guztiek osagai eta azpi-osagaiak dauzkate euren baitan, ezaugarri estrukturalak aztertuz aurki daitezkeenak (adib. puntuen arteko errima edo bukaerako silaben luzapena). (2) Maiz, bertso-moldearen osagai bat errepikaturik ematen da (adib. errima eta doinu berdina duten bi lerro), baina ezaugarri berdinak dauzkaten osagaiak ez dira sekula lau bider baino gehiago ematen jarraian. Litekeena da munduko tradizioetan aurkitzen den muga hori ezaugarri kognitiboen ondorio izatea, izan ere, hiruzpalau elementutik gora kosta egiten zaigu kopuruaz berehala jabetzea edo oroitzea. Hirugarren kapituluan, horri lotutako esperimentu bat aurkezten dut. Bertan, esanahirik gabeko silabak entzun eta errepikarazi egiten zaizkie partaideei. Silaba sekuentzia luzeak entzuten dituztenean (adib. 12 silaba) multzoka antolatzeko joera erakusten dute, bertso-moldeetan bezalaxe.

Bigarren atala bertso-gileen ‘akatsak’ aztertu ditut. Hizkuntza askotan (adib. ingelesez, amazigeraz) bertso moldeek silaben erritmo jakin bat eskatzen dute, silaba azentudunak eta azentugabeak tartekatuz, esaterako. Hala ere, bertso-gileek ez dituzte beti-beti arau horiek betetzen, eta, hainbat kasutan, bertso-lerroen bukaera erregularragoa dela deskribatu izan dute ikerlariek. Joera hori unibertsalak ote den aztertzeko, metodo sistematiko bat garatu dut (4. kapitulua), eta baita bost hizkuntzetako korpusetan inplementatu ere. Lagin kopurua xumea izan arren, emaitzak sendoak dira, salbuespen gutxiago aurkitzen direlarik bertso-lerroak aurrera egin ahala. Bostgarren kapituluan, esperimentu sorta bat aurkezten dut ea goranzko erregularitasun hori arretarekin lotuta ote dagoen frogatzeko. Partaideek danbor-hotsez egindako sekuentziak entzuten dituzte; horietako batzuek bestelako hots bat daukate, eta berau identifikatu bezain azkar botoi bat sakatu behar dute. Bertso-lerroetako joeraren antzera, errazago identifikatzen dituzte salbuespenak sekuentzian zenbat eta aurrerago egon. Baliteke, beraz, gure arreta optimizatzea hots segidak prozesatu ahala, esperimentuetako eta korpusetako emaitzak azalduz.

Azken atalean, doinuak eta hitzak zelan uztartzen diren ikertu ditut. Edozein hizkuntza erabiltzerakoan, silaba batzuk nabarmenagoak, altuagoak edo luzeagoak

izango dira beste batzuk baino; abestien doinueta notekin gertatzen den bezalaxe. Hori hala izanik, ingelesezko hiztunek, adibidez, txartzat jo lezakete silaba azentudun bat nota ahul batekin uztartzea. Horrelako hipotesi ugari proposatu izan dira hainbat hizkuntzarentzat, baina ez dakigu arauak hizkuntzen berezitasunak ote diren, ala orokortasunak ote dauden munduan zehar. Horrelako arauak era sistematiko batean aurkitzeko, metodo konputazional bat garatu dut eta, ilustrazio gisa, nederlanderazko korpus handi bat (hiru mila abestitik gora) aztertu dut (6. kapitulua). Azkenik, metodoa egokia dela berresteko, pertzepzio esperimentu bat burutu dut nederlanderazko hiztunekin (7. kapitulua).

Tesiaren hiru atal hauetan argudiatzen dudanez, munduko bertsogintzen ezaugarri orokorrak sistematikoki deskribatzea funtsezkoa da. Kapitulu bikoitietan (2, 4, 6) aurkeztutako metodoek lan mardul hori arin lezakete. Bestetik, hedadura zabaleko ezaugarriak aurkitu ahala, zergatiak argitzeko hipotesiak frogatu ahal izango ditugu. Kapitulu bakoitiek (3, 5, 7) hainbat adibide eskaintzen dituzte, soilik nederlanderazko hiztunekin ordea. Antzeko esperimentuak hizkuntza ezberdinetan burutuz, beharbada, unibertsalak izan litezkeen joerak azaleratuko ditugu. Azken batean, bertsogintza, sormen askearen fruitu prototipikoa izan arren, gizakion sistema kognitiboaren eremuan sortzen da.

